

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Hasi dira aintzatetsitako desgaitasun-maila egiaztatzeko 30.000 txartelak bidaltzen

*Txartel horiek Nafarroako Gobernuak egin ditu, paperezko egiaztatgiaren ordeztarabiltzeko eta prestazioak erosoago eskuratzeko*

Viernes, 26 de diciembre de 2014

Nafarroako Gobernuak hasi da desgaitasuna aintzatetsita duten pertsonen desgaitasun-maila egiaztatzen duten 30.000 txartelak postaz bidaltzen.

Hori eman du aditzera gaur goizean, prentsaurrekoan, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzaile Gemma Botinek. Botinek azaldu du, halaber, desgaitasunaren aintzatespena aurrean jaso duten pertsonen bidali dietela txartela lehendabizi. Gero aurreko urteetako bidaliko diete, posta-helbideak egiaztatu eta, hala badagokio, eguneratu ondoren.

Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren arabera, urtarrila erdialdean bidaliko dituzte azken txartelak. Desgaitasuna aintzatetsita dutenek txartela ordurako jasotzen ez badute, telefono-zenbaki honetara deituta eskatu ahal izango dute: 848 426 900. Desgaitasun-egiaztatgi berriak desgaitasun-maila aintzatetsi eta berehala bidaliko dira.

Azaroaren 30ean 30.722 nafarrek zuten desgaitasuna aintzatetsita; 17.120 (%55) gizonezkoak ziren eta 13.602 (%45) emakumezkoak. Adinari dagokionez, %31,9 45 eta 64 urte artekoak dira, %26,3 75 urtetik gorakoak, %19,5 65 eta 75 urte artekoak, %12,8 31 eta 44 urte artekoak, %5,3 18 eta 30 urte artekoak eta %4,2 adinez txikiak.

Desgaitasun motari begiratuz gero, %69,5ek desgaitasun fisikoak dauzka, %17,5ek buruko gaixotasunak, %12,9k adimen-desgaitasunak eta %0,1ek desgaitasun mistoak. Desgaitasun fisikoari dagokionez, %32,8 osteoartikularrak dira, %23,9 gaixotasun kronikoak, %19,1 neuromuskularrak, %12,7 ikusmenekoak, %10,3 entzumenekoak, %1,1 adierazpen-urritasunak eta %0,1 bestelakoak.

Mailaka, honela daude banatuta: 12.921 lagunek %33 eta %44 arteko desgaitasuna dute, 7.099k %65 eta %74 artekoa, 5.506k %45 eta %64 artekoa eta 5.196k %75ekoa edo handiagoa.

### Erosoagoa eta errazagoa

Txartel horiek pertsonalak eta besterenezinak dira, paperezko ebazpenaren ordeztarabiltzekoak; izan ere, txartel horren bitartez, desgaitasunak dituzten pertsonen erosoago eta errazago eskuratu ahal izango dituzte dagozkien abantaila, prestazio eta zerbitzuak.

Hona hemen dagozkien zenbait onura: PFEZren salbuespenak, kenkari orokorrak, ohiko etxebizitzan egindako inbertsioen kenkariak,

moldatutako ibilgailuen matrikulazio-zergaren salbuespena, 50 langile edo gehiagoko enpresetan lanpostuen %2 gordetzea eta herri-administrazio eta unibertsitateetan lanpostuak gordetzea. Desgaitasunak dituzten herritarrek beste deskontu batzuk ere badauzkate, garraioan eta museoetan, adibidez.

Txartela desgaitasunak dituzten pertsoneri arreta emateko Nafarroako Gobernuaren plan integralean dago jaso. Txartelak honako hau dio, gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez: "desgaitasun-txartela". Dagokion pertsonaren datuak ere ageri dira, baita desgaitasun-maila eta mugikortasun-baremoa ere, hala bada gokio. Diseinuari dagokionez, benetakoa dela ziurtatzeko ezinbesteko segurtasun-neurriak hartu dira.